

Gender A B C

Bigarren Hezkuntzarako
heziketa-programa



Ezkontza goiztiarra eta behartua

GenderABC (ABC Generoa) proiektuaren koordinatzailea da



eta abian jarri dutenak dira



Argitalpen hau Europar Batasuneko Eskubideak, berdintasuna eta Herritartasuna Programak (2014-2020) finantzatu du.



Bigarren Hezkuntzarako
heziketa-programa

Ezkontza goiztiarra eta behartua

Heziketa-modulu hau **TERRE DES FEMMES** elkarteak landu dute GenderABC proiektuaren barruan.

Aurkibidea

Aurkibidea	2
I - atala: Sarrera	3
1. Xedea	3
2. Gai nagusiak	3
3. Gako-hitzak	3
4. Ikasketa-xedeak	4
5. Jardueren zerrenda	4
II - atala: Jarduerak	5
1. jarduera: <i>Etorkizuna planifikatzen</i>	5
• Testuingurua	5
• Gidoia	5
• Jarraibideak	6
2. jarduera: <i>Ohorea</i>	7
• Testuingurua	7
• Gidoia	7
• Jarraibideak	8
3. jarduera: <i>Rol-jokoa</i>	9
• Testuingurua	9
• Gidoia	9
• Jarraibideak	10
4. jarduera: <i>Hurbilketa artistikoa ezkontza goiztiarrerara eta behartutako ezkontzara</i>	11
• Testuingurua	11
• Gidoia	11
• Jarraibideak	12
Saioaren egitura	13
Moduluen zerrenda	15

I - atala

SARRERA

1. Xedea

Behartutako ezkontza ohorearen izenean gauzatzen den indarkeria mota kaltegarria da eta nazioartean aitortzen da giza eskubideen urraketa gisa eta genero-indarkeriaren forma gisa. Berezikiki neskek eta emakumeek pairatzen dute behartutako ezkontza, baina mutilek eta gizonek ere jasan dezakete, batez ere –baina ez horiek bakarrik– hetero-arauekin eta genero-arauekin bat ez datozenek. Munduan, gutxi gorabehera 12 milioi neska ezkontzen dira urtero 18 urte bete aurretik. Dagoeneko 650 milioi emakume ezkondu dira 18 urte bete aurretik.

Europar Batasunean ere hedatuta dago behartutako ezkontza. Orain arte, 13 estatu kidek soilik¹ ezarri dute behartutako ezkontzetarako zigor-xedapen zehatz bat. Europar Batasunean, oro har, ez dago nazio mailako informaziorik behartutako ezkontzari buruz, agian behartutako ezkontza orain dela gutxi kriminalizatu delako estatu kide batzuetan. Gainera, kasu asko ez dira salatzen.

Horrekin batera, badaude krimen horiek epaitzea zailtzen duten beste faktore batzuk. Oro har, ez dago egiturarik ukitutako pertsonak babesteko edo laguntzeko, ezta babes-programarik ere. Gainera, ukitutako pertsona askok ez dituzte lege-esparruak eta babes-zerbitzuak ezagutzen.

Ondoriozta daiteke, zoritxarrez, estatu kide gehienetan behartutako ezkontza ez dela arazotzat hartzen eta, hortaz, ez da hautematen politika zehatzik behar denik.

2. Gai nagusiak

- Bikotekidea aske hautatzea.
- Ohorea eta ohore-krimena.
- Behartutako ezkontza jardunbide tradizional eta kaltegarria.
- Autoestimua eta norberaren etorkizun pertsonalaren kontzeptuak.
- Autodeterminazioa.

¹ Danimarka, Belgika, Bulgaria, Txipre, Alemania, Espainia, Kroazia, Luxenburgo, Malta, Portugal, Suedia, Eslovenia, Erresuma Batua (Emma Psaila, Vanessa Leigh, Marilena Verbari, Sara Fiorentini, Virginia Dalla Pozza, Ana Gomez; *Forced marriage from a gender perspective* (Ezkontza behartua genero-ikuspegi batetik); Europako Parlamentua: 2016).

3. Gako-hitzak

Behartutako ezkontza • Ezkontza goiztiarra
Adostutako ezkontza • Ohore krimena

4. Ikasketa-xedeak

- Ohorearen ideiak zehaztea eta eztabaidatzea.
- Genero-indarkeriaren inguruko kontzientzia sortzea.
- Nola jardun eta laguntza non aurkitu ikastea baldin eta behartutako ezkontzara derrigortuko badituzte.

5. Jardueren zerrenda

	 Jardueraren izena	 Iraupena guztira	 Materialak	 Garrantzia ²
1	Etorkizuna planifikatzen	35 minutu	• Boligrafoak • Papera	☆☆☆
2	Ohorea	90 minutu	• Kamerak edo kamera duten telefonoak • Ordenagailua proiektorearekin • Beste aukera bat: Boligrafoak eta papera	☆☆☆
3	Rol-jokoa	45-60 minutu	• Prestatutako liburukiak	☆☆☆
4	Hurbilketa artistikoa ezkontza goiztiarrera eta behartutako ezkontzara	45-60 minutu	• Horma-irudiak • Oihala • Pintzelak • Margoa • Arkatzak	☆☆☆

² Jarduerak izarrekin sailkatzen dira (izar bat eta hiru izar bitarteko sailkapenarekin) garrantziaren arabera; adibidez, "oso gomendagarria" den jarduera bat hiru izarrekin sailkatzen da.

II - atala
JARDUERAK

I. jarduera Etorkizuna planifikatzen ³ ☆☆☆

**Jardueraren iraupena guztira**
35 minutu
Prestatzea: 5
Egitea: 20
Segimendua: 10

**Materialak**
☐ Boligrafoak
☐ Papera


→ TESTUINGURUA

Jarduera honetan, parte-hartzaileek **etorkizunaren inguruan amets egin dezakete** eta **ager daitezkeen oztopoak gainditzen** ikasten dute.

→ GIDOIA

**A**

Bi orrialde emango dizkiegu parte-hartzaileei, eta eskatuko diegu lehenengoan etorkizunerako nahi dutena idazteko. Gauza asko aipa ditzakete, hala nola: zein lanbide eduki nahi duten; non bizi nahi duten; ezkondu nahi duten eta noiz; haurrak izan nahi dituzten eta zenbat... Hala, garrantzitsua da parte-hartzaileek –errealista ez bada ere– nahi duten guztia idaztea.

**B**

Bigarren orrialdean, parte-hartzaileek idatzi behar dute zein izan daitezkeen ametsak betetzea eragotz diezaieketen arrazoiak.

³ Terre des Femmes elkartearen bertsio egokitua, *Mein Leben. Meine Liebe. Meine Ehre?*, 16.eszena.



Horren ostean, elkarrizketa bat sortuko dugu non parte-hartzaileek idatzi dutena irakur dezaketen. Besteak beste, gai hauek eztabaida daitezke: berdintasuna, norberarenganako konfiantza eta ezkontza goiztiarra eta behartua; izan ere, azken horiek dira haurrek bere ametsak ez betetzea eragin dezaketen arrazoiak bi. Oraingoan, babes-zerbitzuen inguruko informazioa emango diegu.

→ JARRAIBIDEAK

Konfiantzako giro batean, bikotekidea aske hautatzea eta behartutako ezkontza bezalako gaiak eztabaidatu daitezke. Erabaki beharko dugu zentzuduna den edo ez jarduera honetarako taldea nesketan eta mutiletan banatzea, bereziki behartutako ezkontzaren mehatxupean dauden pertsonak egotekotan.

Honako galdera hauek egingo ditugu:



- Nola sentitu zara zure etorkizuneko ametsen inguruan hitz egitean?
- Nola sentitu zara amets horiek betetzea eragoz dezaketen arrazoiak buruz hitz egitean?
- Zergatik da garrantzitsua etorkizuneko amets zein itxaropenei buruz hitz egitea?
- Ba al dago alderik/antzekotasunik gizonezkoek eta emakumezkoek dituzten ametsen artean?
- Ba al dago alderik/antzekotasunik gizonezkoek eta emakumezkoek dituzten oztopoen artean?
- Zer egin daiteke etorkizuneko ametsak lortzeko aukerak areagotzeko?
- Oztopo horiek komunitateak/gizarteak eraginak izatekotan, zer egin daiteke horiek gainditzeko?
- Zer da zuretzat ezkontza? Zeintzuk dira ezkontzaren kontzeptu desberdinak egoteko arrazoiak (sozializazioa, kultura eta abar)?
- Zergatik ezkontzen da jendea? (harreman pertsonala vs. Egonkortasun ekonomikoa).

2. jarduera Ohorea⁴ ★★★★★



Jardueraren iraupena guztira

90 minutu
Prestatzea: 10
Egitea: 60
Segimendua: 20



Materialak

- ☐ Kamerak edo kamera duten telefonoak
- ☐ Ordenagailua proiektorearekin
- ☐ Beste aukera bat: Boligrafoak eta papera

→ TESTUINGURUA

Jarduera honetan, **ohoreari buruzko iritziak jaso eta kritikoki eztabaidatuko dituzte parte-hartzaileak.**

→ GIDOIA



Parte-hartzaileak gonbidatuko ditugu jendeari “ohoreari” buruz galdetzeraz (“zer da zuretzat ohorea?”) eta telefonoekin erantzunak grabatzera⁵.



Parte-hartzaileek lagunei eta familiari eska diezaiekete. Grabatu nahi ez badute, erantzunak idatz ditzakete.



Ondoren, filmak erakusten dira (edo erantzunak irakurtzen dira) eta esaldiak talde osoarekin eztabaidatzen dira (“ohore” hitza positiboki edo negatiboki sailkatzen da? Banakakotzat edo kolektibotzat hartzen da?)

⁴ Terre des Femmes elkartearen bertsio egokitua, *Mein Leben. Meine Liebe. Meine Ehre?*, 20. eszena.

⁵ Garrantzitsua: Kontuan hartu datuen pribatutasuna: adibidez, film hori erakusteko, aurretik inprimatutako datuen pribatutasunari buruzko akordio bat sina daiteke.

Beste aukera bat:



Parte-hartzaileei eskatuko diegu “ohorea” eta “errespetua” hitzak dituzten abesti batzuen hitzak ekartzeko.



“Ohorea”, “errespetua” eta “giza duintasuna” hitzen definizioak bilduko ditugu eta hitzen inguruko eztabaida sortuko dugu.

→ JARRAIBIDEAK

Laburpenean, honako galderak egin ditzakegu:



- Nola sentitu zara jendeari elkarriketak egiterakoan?
- Zuretzat zer da “ohorea” eta zergatik?
- Zure senideek eta lagunek gauza bera pentsatzen dute? Eragin al dizu haiek pentsatzen dutena?
- “Ohore” hitza berbera al da emakumeentzat eta gizonezkoentzat? Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?
- Zer izango litzateke zure familiarentzat eta lagunentzat zuk desohorezko jokabide bat izatea? Zer egingo lukete?
- Zure ohorearen gaineko ideia indarkeriarekin lotuta al dago?
- Zure ohorearen gaineko ideia indarkeriarekin lotuta egonez gero, zer aldatu beharko litzateke indarkeriazkoa ez izateko?
- Zure ohorearen gaineko ideia indarkeriarekin lotuta egonez gero, zer izango litzazuke lagungarria zeure ekintzekin soilik erlazionatutako ohorearen zentzu positiboa sortzeko?

3. jarduerak Rol-jokoa⁶ ★★



Jardueraren iraupena guztira

45-60 minutu

Prestatzea: 5

Egitea: 30-45

Segimendua: 10



Materialak

□ Prestatutako liburukiak

→ TESTUINGURUA

Batetik, parte-hartzaileek **beste norbaiten ikuspegia barneratzen ikasten dute** eta, bestetik, **bere buruari laguntzen diote eta elkarri laguntzen diote itxaropenik gabeko egoera batetik ateratzeko bideak aurkitzeko.**

→ GIDOIA



Parte-hartzaileak 7 pertsona inguruko taldetan banatuko ditugu rol-joko baterako. Talde bakoitzeko parte-hartzaile batek rol hauetako bat izango du: aita, alaba, lehengusua/lehengusina, anaia/neba, alabaren laguna, irakaslea. Parte-hartzaile batek behatzailearen rola dauka.



Hasi aurretik ezarriko ditugu arauak; esaterako: elkarri entzutea; elkarri ez moztea; besteekin barre egitea onartuta dago baina ez besteei burula egitea; galdera batzuetan, posible da ezer ez erantzutea.



Egoera bat aurkeztuko diegu parte-hartzaileei eta arbelean idatziko dugu guztiek irakur dezaten.

⁶ Terre des Femmes elkartearen bertsio egokitua, *Mein Leben. Meine Liebe. Meine Ehre?*, 18. eszena.

Adibidez:

16 urteko **A parte-hartzailearen izena** bere 21 urteko lehengusuarekin **B parte-hartzailearen izena**, ezkondu behar da zeremonia erlijiosoan herrialderen batean. Ez du bere lehengusua ezagutzen eta ez du harekin ezkondu nahi, baina ez daki aitari nola esan. Horregatik sentitzen da bakarrik eta ez daki nork lagun diezaiokeen. **A parte-hartzailearen izenaren** nebak, **C parte-hartzailearen izena**, 17 urte ditu. Beti zaindu eta behatu behar izan du arreba, hau da, beti ziurtatu behar izan du goiz iristen zela etxera eta “ohorezko” jokabidea zuela. Erdian dago: batetik, bere familiaren “ohorearekiko” erantzukizuna duela sentitzen du eta, bestetik, arreba ulertzen du eta lagundu nahi dio.

Eszena desberdinak antzez daitezke segidan edo aldi berean (hala eta guztiz ere, “aktore” guztiek entzun behar dituzte besteak):

- **A parte-hartzailea** saiatzen da aita konbentzitzen lehengusuarekin ez ezkontzeko.
- **A parte-hartzaileak** lehengusua ezagutzen du, egoerari buruz hitz egiten dute eta konturatzen dira ez dutela ezkondu nahi. Beraz, beren familiei nola esan eztabaidatzen dute.
- **A parte-hartzaileak** bere lagun minari kontatzen dio eta biak joaten dira konfiantzako irakasle batekin hitz egitera, konponbide bat eta laguntza bilatzeko.
- **C parte-hartzaileak A parte-hartzailea** ikusten du bere lagun minarekin hitz egiten eta gaiari buruz mintzatzen dira.
- **C parte-hartzaileak** aitarekin hitz egiten du ezkontzaren inguruan. Aitari esaten dio ez duela **A parte-hartzailea** gehiago zaindu nahi.

Eszena bakoitzaren ostean, atseden bat egin beharko litzateke aktoreek nola sentitu diren eta eszenari buruz pentsatzen dutena azaltzeko. Guk ere eszenen inguruan dugun iritzia emango dugu eta arauak betetzen direla ziurtatuko.

Proposamen gehigarria: eszena bakoitzaren ostean, aktoreek rola alda ditzakete, hau da, bakoitzak bere aurkako rola har dezake.

→ JARRAIBIDEAK

Honako galdera hauek egin ditzakegu:

- Nola sentitu zara rol desberdinetan?
- Zein roletan sentitu zara erosoen? Zergatik?
- Nola aldatu dira zure argudioak rol desberdinak antzezterakoan? Zergatik?
- Non aurki dezakezu laguntza A Parte-hartzailearen egoeran bazaude?



4. jarduera Hurbilketa artistikoa haurren ezkontza behartuetara ★★



Jardueraren iraupena guztira

45-60 minutu
Prestatzea: 5
Egitea: 30-45
Segimendua: 10



Materialak

- ☐ Horma-irudiak
- ☐ Oihala
- ☐ Pintzelak
- ☐ Margoa
- ☐ Arkatzak


→ TESTUINGURUA

Sormen-proiektu honen xedea da parte-hartzaileek artistikoki **aurkeztea behartutako ezkontzarekin zein ohorezko krimenekin/ohorearen izenean burututako indarkeria-rekin lotutako gaiak**.

→ GIDOIA



Behartutako ezkontzaren gaia aurkeztuko diogu taldeari eta ukitutako pertsonengan zein horien gizarte-inguruan (familia, lagunak eta abar) duen eragina azpimarratuko dugu.



Parte-hartzaileak taldetan banatzen dira. Talde bakoitzak erantzun nahi duen galdera bat aukeratzen du:

- Nola sentitzen dira ukitutako pertsonak?
- Nola egin daiteke ihes behartutako ezkontza batetik?
- Zer nolako papera dauka familiak/etorkizuneko senarrak/familiaren presioak/gizarteak eta abar?



Parte-hartzaileen lana da galdera hauek artistikoki adieraztea (adibidez, collage bat, horma-irudi bat, “action painting”, soinuak eta abar).



Artelanak talde osoari aurkezten zaizkio. Talde bakoitzak bere lana aurkezten du eta egindakoarekin adierazi nahi zuena azaltzen du. Taldeak edo beste parte-hartzaileek aukera dezakete artelanan izenburua. Amaieran, emaitzak eztabaidatzen dira.

★ Horrez gain, artelanak gurasoekin egindako bilera irekietan aurkez daitezke; hala bada, talde bakoitzak bere irudia aurkeztu eta azalduko du. Orduan, saiaturako dira gurasoekin behartutako ezkontzarekin lotutako elkarriketak sortzen.

Aurretik, parte-hartzaileek behartutako ezkontzarekin lotutako daturik esanguratsuenak adierazten dituen horma-irudi bat sor dezakete, lege-egoera zein behartutako ezkontzak ukitutako pertsonentzako harremanetarako guneak ere adierazita. Horma-irudiak guztiek ikusteko moduko leku batean kokatu beharko lirатеke.

→ JARRAIBIDEAK

Artelanak publikoki aurkeztu aurretik, galdera hauek egingo dizkiegu parte-hartzaileei:



- Nola sentitu zara ezkontza behartuaren inguruan hitz egitean?
- Nola sentituko zinateke behartutako ezkontza batera behartuko bazintuzte?
- Zer gustatu zaizu/zer ez zaizu gustatu gaia artistikoki jorratzean? Nahiago zenuke gai hau teorikoki lantzea?
- Zer ikasi duzu behartutako ezkontzari zein ohorearen izenean burututako indarkeriari dagokienez?
- Zergatik aukeratu duzue galdera hori? Nola erabaki duzue galdera horrela adieraztea?
- Zer iruditzen zaizkizu besteen artelanak?
- Behartutako ezkontza batera behartuta egongo bazina, nori eskatuko zenioke laguntza?
- Nola lagun daiteke ukitutako pertsona bat?

Saioaren egitura

Moduluaren izena: Ezkontza goiztiarra eta behartua

Ikastetxea: _____

Irakaslea, arduraduna:_____

Ikasgela (Ikasturtea eta data): _____

Parte-hartzaileen kopurua: _____

Data: ____/____/____ **Iraupena:** _____

Aukeratutako jarduerak: _____

Materialak (berrikusiak): ☐ bai ☐ ez

OHARRAK:

[illegible]

[illegible]

MODULUEN ZERREND

- 01 Ziber-indarkeria
- 02 **Ezkontza goiztiarra eta behartua**
- 03 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 04 Emakumeen genitalen mutilazioa
- 05 Genero-indarkeria
- 06 Generoko gizarte-arauak eta estereotipoak
- 07 Talde-kohesioa
- 08 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 09 Bikote barruko indarkeria
- 10 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea
- 11 Sexu- eta ugalketa-osasuna eta eskubideak
- 12 Sexu-indarkeria

- 01 Gorputzaren segurtasuna / Emakumeen genitalen mutilazioa
- 02 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 03 Generoan oinarritutako indarkeria
- 04 Generoaren arau sozialak eta estereotipoak
- 05 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 06 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea

- 01 Arriskuen ebaluazioa
- 02 Metodologia orokorra
- 03 Glosario orokorra

Gender A B C

Ek egindako proiektua:



End FGM
EUROPEAN NETWORK



ASSOCIAÇÃO PARA O PLANEAMENTO DA FAMÍLIA



Europar Batasunak
kofinantzatutako proiektua